

Nafarkaria

Nafarroako gehigarri berezia / Ostirala, 1991ko abenduak 13

Fondoko eskiaren pribilegioa

Eskia bakar batzuen pribilegioa izanik, elurraz gozatzeko plastiko zaharrak hartu eta inguruko mendiko maldak jaitea baino ez zuten askok orain dela gutxi arte. Pirinioetako estazioetara joatea garestiegia zela eta, horrekin konformatu behar.

Duela zenbait urtetik ona, ordea, fondoko eskiak batzuren gogoak bete eta beste askoren begiak ireki egin ditu, kirol merkea, gertu egitekoa, naturarekin harremanak mantentzekoa eta atsegina aurkitu bait dute. Nafarroa paraje ezin ederragoa azaldu da horretarako, eta Belagoa, Abodi eta Aralargo pistak gero eta jende gehiago bisitatzen ditu, elurra agertu bezain agudo.

Hori dela eta, eskaintza ere aunitz handitu eta zabaldu da, eta egun, zaila da eskiak alokatu edo ikastaroak antolatzen dituen mendi erakunde edota kirol talderik ez aurkitzea.

Barnean

BILDOTSAREN KOFRADIA



Latxa arrazako arkume gehiago saltzea da helburua /IV

APEZETXEA



Orokietako apaiza, Kultur Kontseiluaren buruetakoa /VIII



Metropoli forala



FELIPE RIUS

Iruñeko euskal mundu txiki honetan jende gehienak —garaiko hipismoak bultzaturik edo— baserriaren bizimodu bukolikoa erreibindikatzen zuten urteetan, nik kotxez beteriko etorbideaz, pisu askotako eraikuntzak eta arraza guztietako pertsonak nahasten ziren kaleak ikusten nituen ametsetan. Hiri hau herriska bat iruditzen zitzaidan eta ospa egin nahi nuen. Muñoz Molinaren azken nobelaren protagonistak bezala hizkuntza ezezagunak entzun nahi nituen goizean esnatzean, baina urteak pasa dira eta, oporretan egindako zenbait bidai alde batera utzita, nire kosmopolitismo guztia alde zaharreko kaleetan geratu da. Tabernetako bozgorailuetatik New Yorkeko istorioak kontatzen dizkidan bitartean, hiria izan nahi duen herri honen eta bere biztanleen alde berriak eta ezezagunak deskubritzen ditut gauero. Kostatu egin zait, baina azkenean aurkitu dut Iruñeko kosmopolitismo forala, eta dagoeneko Lower East Side bataiatu dut kopak hartu ohi ditudan zonaldea. Zahar-tzen naizenean ezin izango ditut Londonen emandako urteak edo Berlinen okupatutako etxeetako borroak gogoratu, baina, ordurako oso europeo bihurtu ez bagara behintzat, ardo batzuk hartuko ditut lasai ederrean larunbat eguerdian San Nikolasen eta ez dut botila poltsikoan sartutako paperezko poltsa batean izkutatzen ibili beharrik izango. Prohibitianismoaren defendatzaile sutua bihurtzen ari naizela uste dut. Adinaren kontuak izango dira.

Fondoko eskia: hau aukera !

Fondoko eskiak Nafarroako kirol ekintzarik garrantzitsuenetakoa izatea lortu du bost urte eskasen buruan. Eskizaleek, orain dela gutxi arte, Pirinioetako estazioetara joan behar izan zuten elurraz gozatzeko eta malda batetik jauzteko eta eskia kirol modura gutxi batzuen 'pribilegioa' zen. Lurralde honek fondoko eskira-ko dituen aukera paregabeek, ordea, buelta eman diote egoerari, eta egun franko dira alpinoa eta Huescako pistak utzi eta fondora eta Belagoa, Abodi edota Aralargo parajetara heldu direnak.

IRUNEA

Larraungo Udala da Aralar inguruko fondoko eski ikastaroak antolatzen dituena, aurten laugarren aldiz. 'Aste zuriak' zein asteburuak aukeran, ohizko partaideak inguruko ikasleak izaten dira, Alfonso Gogorzena eskualdeko kirol koordinatzaileak azaldu duenez, jende gehiago erakartzeko arazorik nagusia azpiegitura falta bait da. «Ikasleek egunero joan-etorria egin behar dute, hemen ez bait dago azpiegitura denei aterpea emateko. Horregatik, gehienetan, Larraun, Araitz, Basaburua eta Sakanakoak dira ikastarotant aritzen direnak».

Pirinioetako ibarrekin alderatuta Aralarrek bi abantaila ditu Gogorzaren iritziz: hurbiltasuna eta edertasuna. «Aralar Iruñea zein Donostiatik oso hurbil dago, eta ez dago arazo handirik bertaraino joateko. Orobat, ederra da inguru osoa, pago

artean, eta oso atsegina da eskietan aritzeko».

Desabantailen artean, bi dira, bere ustez, aipagarrienak: elur faltarena, eta azpiegiturarena. «Elurra ez da sobera agertzen, Belagoan bezala. Han elurra botatzen du, eta negu osoan mantentzen da, baina hemen egun batetik bestera desagertzen da. Azpiegitura ere arazo handia da zenbait hotel eta aterpe izanda ere».

Hiru ibilaldi daude Aralarren: Gentilarriak, hemezortzi kilometro-

takoa; Artzaibide, hamabostekoa, eta Landare, bostekoa.

Zaraitzun, Abodiko pistak dira horretarako aukeratuak, eta Otsagiko Ekia taldea da ikastaroak antolatzen dituena, abendutik martxora arte. Hemen eskaintza eta eskaerak askoz handiagoak dira, eta prezioak ere franko garestiagoak dira.

Azpiegitura nahiko osatuta dago, landa etxeak ezezik, kanpina eta hotel asko aurki bait daiteke Otsagabian zein inguruko herrietan. Orobat, eta bertako batzarreak erositako makinari esker, pistak beti egoera onean daude, elurra izanez gero, jakina.


Abodiko pista horietan, Larrauko mendatera eramaten duen errepede-

tik ateratzen direnak, hiru ibilbide daude, luzera eta zailtasun ezberdinekoak. Zamukadoia izenekoak bederatzi kilometro du luzeran, eta La Cruz de Osabakoak lau kilometro. Biak linealak dira, hau da, joan eta etorria leku beretik egiten da, eta lehendabizikoa errazagoa da. Hirugarrenak Cerrillar du izena, eta lau kilometro t'erdi dauzka bere ibilbideak.

Baina fondoko eskian aritzeko Nafarroan Belagoak du nagusitasuna, urte askotan lortutako famari esker. Hori da zoko aukeratuena udal zein mendi taldeek beren ikastaroak egiteko, eta lau ibilbide daude horretarako, guztira hogeitahiru kilometro hartzen dituztenak: Eskilzarra, Bortuzko, El Ferial eta Mata de Haya.

Eskaintza anitza da bertan, eta Otsagi zein Izabako udalek, Nafarroako Gobernuarekin batera, ikasleei bereziki zuzendutako kanpaina paratzen dute urtero martxan.

Halaber, bertako Eski Eskolak hogeitamazazpi monitore dauzka fondo zein alpinoko ikastaroak egiteko, mota guztietakoak horiek ere. Eskola hau 1986an osatu zen ofizialki, aurretik horrelakoak ere eginak bazituen ere. Geroztik Espainiako Eski Eskolaren barruan dago, Nafarroan bakarra, eta bertako monitoreek titulu ofiziala behar dute.



Alpinoko pilaketari irtenbidea

IRUNEA

Fondoko eskiaren gorakada azterterakoan, irizpide bateratua dabil horretan sartuta daudenen artean: alpinokan aurkitzen diren jende pilaketek beste irtenbidea bilatzera bultzatu du eskizale asko, eta naturarekin harremana ziurtatuta dago, alpinoko pisten inguruan eraikitako negozioekin nahiko eztabaidagarria zena.

Orobat, egun modan dauden zenbait kirol ekintzetarako guztiz aproposak dira fondoko eskirako inguruak, hala nola mendi txirinduletan aritzeko edota arroilen jaitsierak egiteko, eta elurretan ez ezik, mendirako ibilbideak, turismoa eta herri eta paraje ederrak ezagutzeko parada ezin hobea aurki daiteke bertan.

Nafarroan izan den gorakadan zeresan handia izan dute azpiegitu-

raren egokitze lanek, lehen egur hustiapenerako ziren pistak ireki bait dira fondoko eskirako. Erronkari eta Zaraitzuko Batzarrek makinak ere erosi dituzte horretarako, eta monotoreak ugaltu egin dira franko. Orobat, materiala ere merkeagoa da. Eskiak eta bastoiak luzeagoak eta arinagoak dira, helburua berna eta besoen indarrak hobeki aprobetxatzea bait da. Botek ere mobilitate handia daukate, ibilera erosoagoa egiteko.

Javier Carlosena otsagiarrak azaltzen duenez, ugariak dira alpinoa utzi eta fondoan hasi diren eskizaleak, baina oraindik ez da somatu hemen jende pilaketa handia. Hori gertatuz gero, pista gehiago zabaltzeko aukera ere bertan dago, baina ongi aztertzeko beharko luke izan, naturaren hondamendia ez sortzeko. «Zarai-

tzun, kasu, egurretan aritzeko erabiltzen ziren pistak aprobetxatu dira, baina gehiago egiteko arreta handiz izan beharko, bertako inguruak oso ongi zainduak izan bait dira betidanik. Oraingoan, hala ere, ez da horrelako beharrik ikusten».

Bestelako iritzikoa da, baina, Erronkariko Eski Eskoletako idazkaria, azken urteotan bizi den igoera izugarriak arazoak sortzen bait ditu bertako pistetan. «Belagoan dauden hogeitahiru kilometroak, askotan, urriegiak izaten dira etortzen den jendearendako, eta aztertuta dago Contiendan, Arlasen magalean, pista berri bat egiteko aukera. Zonalde hau, baina, ofizialki babestuta dago, eta badaude arazoak, baina batzuk uste dute pista jarritz gero dagoena baino garbiago eta zainduago egongo litzatekeela...».

Nafarroako aukerak

Aralar

Larraungo Udalak antolatutik. Tf.: 60 45 45
Abenduaren 1tik martxoaren 5a arte.
Aste zuriak (ikasleendako): 4.600 pta.
Bi asteburu: 6.500-4.600 pta. (materialik gabe)

Zaraitzu

Ekia taldeak antolatutik. Tf.: 89 01 84
Abendutik martxora arte.
Aste osoak (bost egun): 20.000 pta.
Asteburuak (hamar ordu): 9.000 pta.
Bi asteburu: 16.600 pta.
Gabonak eta Aste Santuetarako eskaintza bereziak.

Belagoa

Izabako Udalak antolatutik (ikasleendako). Tf.: 89 30 05
Urtarrilaren 11tik apirilaren 3a arte.

Aste zuriak: 11.546 pta.
Asteburuak: 2.980 pta.
S.C.D.R. Anaitasunak antolatutik
Urtarrila eta apirila bitartean.
Hiru asteburu (larunbat eta igandetan: 24 ordu). Ostatu edo ostaturik gabe.
C.D. Navarra. Tf.: 22 43 24.
Urtarrilaren 12tik martxoaren 29ra.
Asteburuak
Igandekoak
Aste osokoak.
Eskaintza bereziak Gabonetan eta Aste Santuan.
Erronkariko Eski Eskolak antolatutik. Tf.: 89 32 66
Urtarrila eta martxoa bitartean.
Hiru larunbatekoak edota hiru igandetakoak.
Bi asteburu jarraian.
Aste osokoak.
Eskaintza bereziak Gabonetan eta Aste Santuetan.

Bildotsaren zapore goxoaz

Euskal Herriko nekazaritza eta abelazkuntzak bizi duten egoera larriaz ez dago gauza berri gehiegirik esaterik. Europako merkatuak beldur eta kezka nabaria sortu du baserriar eta artzainengan, merkatu bakar horrek ekar ditzakeen ondorioak somatzen baino ez direlako hasi oraindik, eta gero zer etorriko den igartzea ez da erraza. Egoerari aurre egiteko ekintza eta ahaleginak, berriz, ez dira sobera. Latxa ardiak dira nagusi Euskal Herrian, baina arazo handiak dituzte ardiok dituzten artzainek, esne prezioak behera egin duelako eta arkumea prezio onean saltzea zaila delako. Latxa arkumearen kontsumoa bultzatzeko kofradia sortzea izan da azken erabakietako bat, Nafarroan sortu dena.

A.BARANDIARAN / IRUÑA

Joan den igandean aurkeztu zen Etxarri-Aranatzen Euskal Herriko Bildotsa Kofradia, latxa arrazako arkumeen kontsumoa bultzatzeko asmoa izango duena. EHNE sindikatuko zenbait artzain nafarrek sortutakoa, sektoreak bizi duen egoera larriari irtenbidea bilatzeko pausu berri bat baino ez da kofradia hau, artzainen esanetan, eta ikusmirak jatorrizko izendapena lortzera daude zuzenduta.

Latxa arraza nagusi da Euskal Herrian gaur egun, eta etekin handiena esnea eta hortik egindako gaztatik ateratzen dute artzainek. Esnearen prezioa hamar eta hamabost pezeta bitartean jaitsi da aurtan, eta haragiaren prezioak ere antzeko beherekada izan du.

Hori dela eta, eta Europako merkatuak luze gabe areagotuko dituen arazoei irtenbidea eman nahian, ber-

tako produktuak bultzatzeko ahalegin handiak egiten ari dira sindikatu zein artzainen aldetik.

Mikel Petrirena EHNE sindikatuko Nafarroako buruak azaldu duenez, kofradia hau «produktua ezagutarazteko bitarteko bat da, baina azken helburua ez da kofradian bertan gelditzea, baizik eta honen bidez, hemengo produktuaren kalitateaz

ohartarazi nahi ditugu kontsumitzaileak. Kalera ateratzeko modu bat da, hazkuntza naturalean egindako eta hormonik gabeko produktuaren publizitate gisa bultzatzeko».

Euskal Herriko merkatuan gaur egun, Frantzia, Britainia Handia, Australia zein New Zeelandeko arkume asko sartzen da, eta horrek, Petrirenak azaldu digunez, prezioen beherakada etengabekoa eragin du. Horregatik, artzainek berezko sare

komertziala osatzeko erabakia hartu zuten duela gutxi, arkumeak hil eta merkatura zuzenean eramateko. Horren bidez, sei mila kilo bildots saldu zuten iaz, eta aurtan, beraiek egindako kalkuluaren arabera, hamar mila inguru salduko dute.

Hori izan zen, hain zuzen ere, produktua bultzatzeko lehendabiziko pausua. Ondoren, izen bat eman behar zitzaiola eta, hobeki saltzeko, zigilu bat paratu zioten: Euskal Herriko Bildotsa. Hirugarren pausua kofradiarena izan da, eta aurrera begira, jatorrizko izena dute buruan, horretarako kalitate kontrolak eta jarraipen handiagoa eskatzen bada ere.

Azken helburua ez da kofradian bertan gelditzen, baizik eta honen bidez hemengo produktuaren kalitateaz ohartarazi nahi ditugu kontsumitzaileak.

Baina prozesu guzti horretan, kontsumitzaile zein gobernuetako laguntza eskatzen dute artzainek, Jesus Maria Mendiola kofradiako lehendakaria eta bultzatzailetako batek azaldu duenez «kanpoko produktuak erraztasun guztiak bait dituzte hona sartzeko. Gure ustez gobernuak laguntza eman behar dute, eta oso inportantea da kontsumitzaileek ere ongi informatuak izatea. Seguru gaudete hemengo produktua saltzen dela jakinda gehiago pagatuko lukezela. Horregatik, eta prezioak berriro jaisten badira, axurjak hartu eta jendea irregalatzeke prest gaudete».



Latxak eta rasak

A.B. / IRUÑA

Nafarroan, azken datuen arabera, latxa arrazako 215.000 ardi buru daude, eta rasa arrazakoak, 560.000 inguru. Latxen artean, ardiak 160.000 inguru dira, eta horietariko 115.000 esnetarakoak dira. Rasa arrazakoen artean, bestalde, 380.000 inguru dira ardiak, baina horietariko bost milari baino ez zaie esnea jaisten. Portzentaien arabera, latxa arrazakoak Nafarroan dagoen buruen % 27 dira, eta rasa arrazakoak, % 72.

Latxa arrazako ardiak betidanik erabili dira bereziki esnetarako, oso kalitate onekoa bait dute. Bere produktorik adierazgarrienetakoak, beraz, gazta eta esnekiak izan dira. Hori dela eta, arkumeak hamar bat kilo hartzen duenean, esnea kentzen zaio segituan, ardiak jaitsi ahal izateko, eta belarra jateari ekiten dio. Elikaduraren aldaketak haragiaren kalitatearen aldaketa ere eragiten du, eta ondorioz, haragiaren zaporea askoz fuertea bihurtzen da. Orobat, gilborra asko agertzen da.

Beste arrazetan —Erriberan hazten den rasan, kasu—, esnea ez da ia aprobetxatzen, eta arkumeak hogei-hogeiabost kilo hartu arte elikatzen da esneaz. Ondorioz, haragiak ere bildotsaren zaporea gorde egiten du, eta gainera, sortzen duen gilborra hobeki nahasten da haragiarekin.

Euskal Herrian ohitura handia izan da betidanik bildots haragia jateko, eta artzainek beraiek azaltzen dutenez, ez dago desberdintasun handirik arraza ezberdinetako haragiaren artean, «baina hemengo pro-

duktua delako saldu nahi dugu, hemengo baserrietan eta hemengo artzainen produktua, eta hori bultzatzeko jendea jakin arazi egin behar zaio».

Adituek nabarmentzen dutenez, latxa arrazak ez du orain arte inolako hobekuntzarako azterketa sakonik izan, baina inguru gogorrenetan mantentzea lortu duen bakarra izan da. Oso hazkuntza naturala izan du betidanik, eta hortik etorri behar dute haragiaren kontsumoa bultzatzeko ahaleginek.


'Mazantini' aldizkari bereziak ezaguna du dagoeneko argia

IRUNEA

Bukatu berri den Durangoko Azokan 'Mazantini' aldizkari berriak ikusi zuen argia, Nafarroatik bultzatu eta osatua izan dena. Pamiela etxeak argitaratutakoa, bihilabete-koa izanen da, eta hogeitamabi orrialdetan, Txema Aranatzek zuzendutako etxeak erakusten duen ohizko aurkezpen txukunaz, kalitatezko testuak aurkeztea du asmorik asmorena.

Luis Mazantini Egia Elgoibarren 1856an jaio zen toreatzailearen izena zen, eta lehendabiziko ale honetan, nabarmentzen da ondoren gobernadore zibila izatera heldu zen pertsonai bitxiaren izakeraren aldetako bat. Aldizkari osoan 1850eko 'Historia del Torea' izeneko liburutik hartutako iduriak dira apaingai, Eduardo Gil Bera aldizkariaren kudeatzailearen esanetan, «despistatzeko» baino ez badira ere. «Ale honetan agertzen diren iduriek, aldizkariaren irakurpen dolea egin daitekeela erran ahal da, biak bide desberdinetik joaten direlako. Hau da, testuek ez dute zer ikusirik iduriek. Mazantini eta toreatzaileen iduriak paratzea kointzidentzia besterik ez da izan».

Aldizkaria berezia izanen dela ez dago dudarik, baina horretan ere asmo berezirik ez dela izan azaltzen du Gil Berak. «Aldizkaria berezia izanen da bertan lan egiten dutenak ere bereziak direlako. Gainera, zerbait eginez gero, bederen espeziala izan behar da, bertzenaz ez genuke eginen».



Eduardo Gil Bera. BAYO

Aldizkaria berezia izanen da bertan lan egiten dutenak ere bereziak direlako. Gainera, zerbait eginez gero, bederen, espeziala izan behar du, bertzenaz ez bait genuke deus aterako.

Atal finkorik ez du izanen 'Mazantini', eta lehendabizikoan testu motza zein luzeak tartekatzen dira, Patziku Perurena idazleak 'Baserri-ri' eginiko elkarrizketarekin batera. Horrela, 'Luma airosen markak' atalean, idazle euskaldun zein atzerriarren testuak irakur daitezke, eta ondoren bost kolaborazio daude: 'Intermezzi' Aurelia Arkotxarena; 'Wagadu' J.A. Etxezarragarena; 'Miarritze', Wiheim Von Humboldtena; Luigi Anselmiren bi poema, eta 'Orhoituz', E. Urrutirena. «Ez dugu osakera finkoa izanen, eta errepikatzen ahal da zerbait, baina ale bakoitzak kolaboratzaileek bereaiek egindakoen arabera izanen da».

Talde honetan, aipatu Perurenaz gain, Jose Maria Larrea, Aurelia Arkotxa, Aingeru Epalza, J.E. Urrutia Kapo, Luigi Anselmi, J.A. Etxezarraga eta Dario de Zaurieta daude. Idazle nafar, bizkaitar zein Iparraldekoak beraz, eta arreta berezia euskalkie, honek beste batzuei atek ixten ez badizkie ere. «Talde hau osatuta egoteak —dio Gil Berak— ez du esan nahi beti haiek idatzi beharko dutenik. Aldizkariak zabalik ditu atek beste kolaboratzaileendako».

Durangoko Azokan izan zuen salmentari buruzko datuak ez baditu ere, Elgorriagako idazleak harrera ona izan zuela jakin badaki. «Ni ez nintzen izan, baina badakit erakargarria egin zitzaizela irakurri zutenek, itxura zein edukieraren aldetik. Jendea berezia izan zitzaion».

Mazantini

I. zenbakia • lehen urtea • 1991 • Iruñea



● Aldizkarian erabili dituzten irudiak «despistatzeko» dira. Testuek ez dute deus ikusirik irudiek. Irakurketa bikoitza eskaini nahi dute.

mintzoak

Hondamendi ederra

● Orain duela hamabost urte edo, Estatuak eta Elizak akodio bat egin zuten: Eliz Gizon-Emakumeek, bertze langilek bezala, Gizarte Babesean (sozial seguritatean) sartu zituzten. Beharrezko gauza bat lortu zuten. Apezak babesik gabe zeuden: jubilazio edo zerbiderik gabe zeuden. Bai eta ere eridirurik gabe. Horrela behin baino gehiagotan ikusi ditugu apezak lauetanogei urtetik gora, bere lan postuan jarraitu behar zutelara: eta eri egon arren ere bere lan postuak iduki behar.

Hau dena konpondu zen akordio haren bidéz. Gaur egun apezak, alderdi horretatik, lasaitasun osoan daude: hiruetanogei ta bortsu urte bete eta bere lana utz dezakete, eta zerbidean hasi. Benetan *itun* polita izan zen: apezaren larritasun ekonomikoa desagertu egin zen.

Baina Eliz-Estatu *itun* hortan, *hutsune* handi bat dago: apez-lana utzi zutenak batera babesik gabe gelditu ziren. Nafarroan, Iruñeko Elizbarrutiko apezetatik 120k baztertuta izan zuten bere burua, eta praille ta monja kontuan hartuez gero, 300 inguruan uste dut kokatuko garela.

Nere ustez *baztertutasun* hau gure Ama Santua Elizak nahita egin

zuen: horrela sekularizatuak edo arrotatuak, bere pekatuaren saria hartu beharko zuten, eta kitto. Eliz Nagusitza da erruduna, eta ez kristau xehe eta apalak. Hauxe da nere iritzia: nahiago nuke bai nere iritzia oker idaztea, baina azken bortsu pa sei urte hauetan egindako indarraldiak baztertutasun ageri hori zuzentzeko, alferrikoak izan dira.

Nafarroan 300 pertsonen Elizaren eta Gizartearen egindako lana, eginak ez balira bezala daude. Zerbide hartzerakoan ez dute ezertarako balio.

Orokorki begiratuta eta, soldata oso luzeak ez direla izanen pentsa dezakegu, eta azken zortzi urteko soldataren mediatara ondoren, % 30 kentzen badute, zerbide murriz bat eta bertzerik ez geldituko da.

Horrela gauzak izanik, nik Zirrarda Gure Jaunari hauxe eskatzen diot: Berak zerbidea hartu baino lehen, Nafarroako 300 pertsonen zerbidea konpondu dezala. Horrela bere kontzientzia lasaituko luke, eta guk lasaitasunez beterik hasia hartuko genuke.



Mariano Izetari omenaldia egingo diote igande honetan Elizondon

ELIZONDO

Mariano Izeta Elizondoko bertsolariari omenaldia antolatu diote Nafarroako Bertsolarien Lagunak eta Baztango Udalak, heldu den iganderako, abenduak 5. Aste osoan zehar ere zenbait ekintza izan dira horren inguruan, eta horrela, gaur bertan, bertso jarrien kantaldia izanen da Elizondoko Kultur Etxean, arratsaldeko zazpitan. Xabier Amuriza eta Anje Duhaldearen eskutik. Ondoren, bertso afaria dago iragarrita, Amuriza bera eta Jon Sarasuarekin.

Igandean meza nagusia izanen da goizeko hamarretan, eta 13.30etan Antxitonean bazkaria antolatu dute. 16.00etan, bertso jaialdia. Esan behar da bazkarira joan nahi duenak abenduaren 15 baino lehen deitu behar duela 22 83 32 telefonora.

Nafarroako Bertsolarien Lagunak 1984ean sortu zenean, elkarteak Mariano Izeta lehendakari postuan jarri zuen eta horren arrazoiak aipatu beharrik ez izan arren, bera izan zen 1960-1966 bitarteko txapelketako zuzpertzatzailea eta 1979ko Paulo Yantzi saria epaimahiko lanean burubelari aritu zen gutti horietako bat.

Elkarte beretik adierazi dutenez, lehendakari izateak baditu berekin betebeharrak batzuk eta bilkurei huts egin gabe «solasaldi luzeetan hantxe izan da adi-adi eta erne, bere iritzia jaulkiz, aktak sinatuz eta bertsolariak animatuz. Urteek eman dioten esperientzia eta jakinduria guztiz balio-tsua bilakatu da beregan. Oraindik ere bertso saio bati buruz zalantzarik badugu, berak kolpetik erantzuten digu ordenagailu baten antzera. Erantzun zuzenak eta azkarrak dira bereak, zenbait artxiboren pare jar daitezkeenak».

Baztango herri denetan ez bada, gehienetan bederen, azken hogeitamart urtetan ibilia da bertsolariei gaiak emaiten. Kanpotik zetozen bertsolariak berehala paratzen zituen neska eta mutilzaharrei kantatzen edo baserriko maizterren egoera ager zezaten galdegiten zien.

Egun bertsolari bikainak badira, bertso saio ederrak entzuteko aukera paregabeak ere izaten dira, baina, egun hori guztia ez litzateke posible izanen Mariano Izeta bezalako gizonek lan isil hori egin izan ez balute. «Bere lana ez da erloju dendararen muga, ezta nobelatarren pare bat idazteraren ere edo Baztan guztiko baserriak ko-



Mariano Izeta.

rritu ondoren hiztegi itxipi bat osatzea, bertsolaritza artzain izan dugu» diote elkarteek.

Guzti horrengatik Euskal Herriko bertsolarien omenaldia ere jasoko du Izetak, Emile Larre baigorriarra eta Teodoro Hernandezarekin batera, heldu den urtarilaren 19an, Donostiako Victoria Eugenia antzokian.

gazteendako zokoa

Erroia

Corvus corax
Beltza burutik hatzaparretaraino
Oso aurreratua psikikoki
Gustokoak ditu haratustela eta hondakinak



Adimen argiko hegaztia

Maiz nahastuta bere familiako zenbait espeziekin —belbeltza, belaxikia— erroia da paseiformerik handiena, luzeran 60 zentimetro eta zabaleran 130 inguru izaten bait du. Hegalaldian aise ezagutu daiteke bere buruagatik, oso zabala, eta bere isatsagatik, taketaren antzekoa. Geldirik, bere mokoa nabarmentzen da, bereziki handia.

Denetarik jaten du, belarrak, sagutoxoak, arraultzak, txori txikiak, untxiak edota fruituak, zaborrak, haratustela... Esan ohi da saiak ez direla jaisten animalia hilak jatera aurretik erroiek begiak jan ez baditu.

Lagun bakarria izaten du bizitza osoan, eta frankotan bera baino animalia handiagorekin —saiak, ugatza— sartzen da liskarretan.

Bere oihuak oso bereziak dira, anitzak eta landuak oso bait dira. Praktika apur batekin, taldearen portaera antzeman daiteke behin oihuak ezagututa.

Psikikoki oso aurreratua da, eta hegaztirik azkarrenetzat jo dute adituek.

Aintzinean sakratutzat zuten, eta etorkizuna igartzeko erabiltzen zen. Germanoek eta arabiarrek, azken hauek oraindik gaur egun, estima handia diote, baina hemen ez du oso fama ona, 'patu txarrekoa' dela bait diote.

Uda denboraren lapurra

AITOR GASTON

Begiak horiak dituzu, konturatu al zara?

Ispilura begira nengoen eta Susanaren hitzak nire barnean entzuten nituen. Baina bost axola niri, ez nuen ezer arrarorik ikusten nire begietan. Ez zeuden horiak.

—Nola ezetz, Susanak arrazoia du, begiak horiak dituzu.

Amak, aditu orduko, epaile zorrotz baten gisa, niretzat denbora galtzea soilik zen mediku harengana bidali ninduen.

Ez naiz medikuen beldur. Baina ondo nengoen eta mediku horrekin izandako lehenagoko esperientziak ez ninduten joatera bultzatzen.

—'Yo le veo bien, pero que se haga una analítica'. —Ondo ikusten dut, baina egin dezala analisia—.

Ez zitzaidan medikuaren joera lakonikoa gustatu. Amarekin haserretu egin nintzen. Kokolo halakoa, konponezina naiz.

Analisiak egin nituen, noski.

—Analisi hauek ez daudela ongi esan dit laguna dudan mediku batek —amak larrituta.

—Ni ondo nago, hala ere —behin eta berriro.

Egia zen eta bilirubina delakoa gora egina nuela esan zidaten. Ez zekiten. Aukera asko zeuden; atsedena hartu behar izatea, ohean gelditu beharra... zeinek zekien?


—Me va a guardar usted reposo y no ingerirá alimentos grasos.—Atseden hartu eta ez janari koipetsurik jan—. Ezin nuen baina ondo nengoen.

Kaka zaharra. Uda erdia pikutara. Ezin nuen Sanferminetan nire taldearekin dantzatu, ezin nuen parrandan ibili, ezin... lasai egon baino ezin nuen egin. Ezin nuen baina ondo nengoen.

Hasierako erreazkzio baretsuaren ondoren, razionaltasuna alde batera utziz biolentzia etorri zen egun batzuz. Azkenean lasaitu eta onartu nituen jartzen zizkidaten debekuak.

Ezin nuen baina ondo nengoen.

Medikuek zorutzen ari ninduten. Batek gauza bat, besteak bestea, eta



egunoro jakinminetz eta inpazientziatziaz.

Azkenean genetikoa zela esan zi-

daten, guztiz ikaratuta nengoen, baina ez zuen nire bizitzan eraginik, eskerrak.

Ahal nuen eta ondo nengoen. Osasuntsu zaudela jakitea baino gauza hobeago gutxi dago.

NON ZER

Ikastaroak

Nafarroako Igerigea Federazioak igeriketa monitore izateko ikastaroak antolatu ditu heldu den urteko otsailerako. Horretarako eskaerak Federaziora bidali hilak 15 baino lehen: Paulino Caballero, 13. Iruñea

□ Arbolei buruzko ikastaroa antolatu du Lakuntzako Pertza Elkartek, landaketa, mozketa, txertoak, eritasunak eta abar jorratuko duena. Ikastaroa hilabete honetan izango da, 21etik aurrera eta ostiral eta larunbatetan. Izenemate epea hilak 15 amaituko da.

□ Zankoz ibiltzeko eta txalaparta jotzeko ikastaroak antolatu ditu Baztandarren Biltzarra Elkartek. Abenduaren 20an hasi eta 28ra arte iraungo dute.

Lehiaketak

□ Portugaleteko (Bizkaia) Udalak Komiki lehiaketa antolatu du, euskaraz zein erderazko lanendako. Lau orrialdekoak izan behar dute, 18x24 formatakoak, eta zuribeltzean zein kolorean. Aurkezteko epea urtarrilaren 10ean amaituko da, eta originalak bertako udaletxeko Kultur sailera bidali behar dira. Tf.: 94-495 60 03.

□ Pedro Atarrabiakoa Kondagintza Lehiaketarako deia egin du Beti-Onak elkarteak, euskaraz zein erderazko ipunietarako. Testuak martxoaren 31 baino lehen bidali behar dira Beti-Onak Elkartera: Atarrabia, 1. 31610 Atarrabia-Billaba.

Bidaiak

□ Gabonak tuaregs-ekin pasatzeko

parada ezin hobe eskaintzen du Natura taldeak, 'Argelia Trekking en el Hoggar' antolatu duen bidaiarekin. Abenduaren 24etik urtarrilaren 7a arte, basamortuan gabon beroak igarotzeko aukera. Natura: Tf.: 21 16 07.

Lana

□ Bortzirietako Mankomunitateak administrari laguntzaile baten lanpostua betetzeko deialdia egin du, amaiera zehaztu gabeko erregimen laboralean. Informazio gehiago nahi duenak Iruñeko Gaztedi Etxean galde dezala. Tf.: 23 35 12.

□ Oltza Zendeako Udalak koordinatzaile kulturalarendako lanpostu deialdia egin du, urtebeteko kontratua betetzeko. Interesatuak udal-etxera dei bezate. Tf.: 32 20 68.

KAZKAZORROAN

Iratzargailua

Leitzako Bertso Eskolan jarritakoa. Iratzargailuak goizean sortzen duen haserreaz.

Ez du inork gustoko goizez jeikitzea gustora egoten gara maitatuz ohea esnatzen saiatzen da despertadorea urrutira joango da emanez golpea


Ikastolara joan ta jarri naiz pentsatzen despertadore zaharrak nauela esnatzen berak nau goizetan pixkat hasarrazten ta horrela hasten naiz maldizioak botatzen

Txirrina jo ondoren sukalde aldera begik ezin irekiz mugituzten gera gosaldue ondorean jaintzi ta kalera Mantsu jeitsiko dira zenbait eskalera

Bi orratz ta botoia dun aparatua bat luzeagoa da txit azkarragoa txikiena ordea benetan mantsua traste hauetaz jakin dezaket ordua

Maialen Gonzalez

HITZ GURUTZATUAK



EZKER-ESKUI: 1.-Kausa partikula. Zakar, gogor. 2.-Futboleko, atzean jokatzen duena. 3.-Lurra iraultzeko tresna. Euskal atzizkia. 4.-Aratu aditzaren infinitiboa. Noka, zen. 5.-Kontsonantea. Joan hadi. Potasioaren sinbolo kimikoa. 6.-Trapu. Joan den urtean. 7.-Adar. Arraza. 8.-Pluralean, estilo poetikoa. 9.-Kasik (bi hitz). Uztai.

GOITIK-BEHERA: 1.-Suzko armen jaurtikigai. Zuzeko goilare handi. 2.-Nafarroako herria. 3.-Iparraldean, beldurra, izua. Euskal atzizkia. 4.-Infusio mota. Josteko edo ehotzeko gai. 5.-Berrogeitamar. Leku horretan. Sufrearen sinbolo kimikoa. 6.-Aintzira. Iparraldeko alderdi abertzalea. 7.-Aranondoaren fruitua. Norbait. 8.-Teinkadak. 9.-Esperoa. Zorro.

Zaharrak berri

Balitz ta bagendukek, etxea artoz ez due betetzen.
Lanean azkar saiatu ezean, ez da aberasten.

Araitz.
Behi bat hobe umearekin, hogeido dozenako zerrri bat baino.
Eratsun (Basaburua).

Atzerriko hiri handi batean, turista guztiak bisitatzen duten museoa bi mingain daude beirazko kanpai baten azpian. Bata txikia eta bestea handia.
Turista batek hura ikusi zuenean, galdetu zion aldamean zeukan beste turista bati:
—Norenak dira mingain horiek?
—Handia Napoleonea.
—Eta txikia?
—Txikia ere Napoleonea; baina haurra zenekoa.

Bizi Bizian

Ekia taldea Zaraitzuko dinamizatzaile handienetakoa dugu. Bertako sei gaztek osatuta, uda honetan ireki berri duten Osate kanpinetik makina bat ekitaldi eta ikastaro antolatzen ditu, denak turismo eta na-

turaren ingurukoak, eta denak ere nahi bakar batekin: inguruneak ematen dituen aukerak aprobetxatzea kanpora bizitzera joan behar ez izateko. Landa turismoak, dudarik gabe, badu ispilu ederra Otsagi aldera.



Naturarekin uztarria Zaraitzun

OTSAGI

Ekia Taldearen ideia duela hiru urte sortu zen, Nafarroako Gobernuak antolatutako bultzatzaile ikastaro baten inguruan Zaraitzu eta Erronkariko taldea elkar ezagutu eta bildu zenean. Gogoratzen dutenez, ikastaro hura nahiko teorikoa zen, ez bait zen bertan proiektu konkretuez aritzen, baina gogo eta nahi antzekoak zituzten sei lagunek taldea osatu zuten orduan, teoria praktikan gauzatzeko asmoz.

Horrela, fondoko eskia eta udalekuei ekin zieten aurretik, «gauzak egin beharra nabaria zelako, azpiegiturarik eza oztopo izan arren». Horretarako materiala erosi zuten, eta Nafarroako Gobernuaren kanpainen barruan sartu ziren.

Baina benetako apostua ondoren heldu zitzaion, kanpina eraikitzeak aukera Otsagin bertan azaldu zenean. «Guk bagenuen horretarako plan bat, baina Nafarroako Gobernuak turismoa garatzeko egitasmo bat prestatu zuen, eta hor azpimarratzen zen Otsagin bertan kanpina egiteko aukera. Otsagiko Udalak erreparatu zion asmoari, eta horretarako lurrak erosi zituen. Ondoren ideia lehiaketa ateratu zen, baina, guk aurretik asmoa genuenez, akordio batera iritsi ginen, hamar urtez gestioa geuk eramateko. Gure aldetik, kanpinaren materialaren inbertsioa egin genuen».

Hortik sortu zen Ekia Kolektiboa, egun sei bazkidek osatzen duena. Kanpinaren eguneroko ihardueran bost dabilta: bi Otsagikoak, eta Ibil-tzieta, Nabaskoze eta Uztarrozeko bana.



Ekiak bere esku du Otsagiko kanpina hamar urtez.

Osate kanpinaren lanak pasa den uda hasieran amaitu ziren, eta bertan kanpin dendetarako laurogei lur sail, karabanendako beste hogeitamar, eta zortzi logela kanpinaren barruan, sei ohe eta komunarekin bakoitza. Bertan ere taberna, jantokia eta janari denda dago.

Aunitz dira bertan eskaintzen diren aukerak, denak inguru eta na-

Guk hemengo jendearendako lagungarria izango den turismoa nahi dugu, ez kanpoko industri edo enpresariak aberasteko balio lezakeena.

turarekin bereziki lotuta. Lehendabizikoa, fondoko eskia, urtarrila eta martxoa bitartean antolatutakoa, era askotakoaz. Horrela, 'Aste zuriak' igandetik ostiralera izaten dira, eta ikastaro bera ez ezik, ostalua, materiala eta garraioak eskaintzen dituzte antolatzaileek. Horretaz gain, asteburuko ikastaroak edota Irati, Laza eta Belagoa barne ze-

harkaldiak egiteko aukera ere bada-go.

Udalekuak dira Ekia taldearen beste ekitaldi nagusia. 11 eta 14 urte bitarteko gazteei zuzenduta, hamar egunetako txandak antolatzen dituzte bai Otsagin nola Iratin, ekaina eta iraila bitartean.

Bi hauekin batera, mendi bizikleta ibilaldiak ere antolatzen dira monitoretz lagunduta, eta horretarako alokairu zerbitzua badago kanpinean bertan. Halaber, arroilen jaitzierak egiteko ere aukera eskeintzen da, Irati eta Zaraitzun barne ibilaldiekin batera.

Eta horien artean bitxienetakoa, eta antolatzaileen esanetan, «erantzun ezin hobea izan duenetakoa», Zaraitzu zein Erronkariko altxonbideetan barna ibilaldiak, arrakasta handia izan dutenak. Irailan, eta bertako artzaniek Bardeetara joateko antzinatek erabili dituzten bideetatik, hiru izan dira eskaintzak. Lehendabizikoa, artaldearekin batera, Zaraitzuko altxonbidetik zehar. Bigarrena, Erronkarikoatik, artalderik gabe egin zuten, eta hirugarrena, mendi bizikletekin. Guztietan janaria, lo egiteko dendak eta laguntzarako ibilgailuak paratu zituzten antolatzaileek.

Aurrera begira ere proiektuak ez dira urriak, eta zaldiz ibilbideak, mendi eskia, eta abar dute buruan. Lehendabizikoa uda pasata, neguaren zain daude orain, eta elurra oraindik gehiegi azaldu ez bada ere, fido dira kanpinak eskaintzen dituen aukerekin. Gu egon ginen asteburuan, Otsagi osoan ez zegoen toki bat. Kanpina, jakina, jendez gainezka.

Gazteak herrietan gera daitezen turismoa ona dela uste du Ekiak

OTSAGI

Landa turismoak duela zenbait urtetatik ona arreta berezia jasó du Nafarroako Gobernuaren aldetik. Turismoaren joera berriek naturarekiko harreman handiagoak lortzea dute helburu eta lurralde honek eskaintzen dituen aukeraz jabetu dira Gobernu, enpresari eta talde franko. Bertako biztanle eta azpiegiturak garatzeko kanpainak publizitate eta bultzapena merezi dute alde askotatik, eta horren lekuko Turismo Bulegoaren azken kanpaina: 'Nafarroa. Inguru naturala'.

Asmo hauek, hala ere, ez omen dira oraindik gehiegi erroto erakunde lokaletan, eta Javier Carlosena Ekia taldeko partaidea azaltzen duenez, laguntzak oso urriak izan dira. «Egia esanda, abantail askorik

ez dugu jaso, hemen egin ditugun gauza guztiak gure interesa eta gure lanak bultzatutakoak izan bait dira. Zaraitzuko Batzordearen aldetik ez dugu inolako laguntzarik izan, eta Nafarroako Gobernuak ere legez araututakoa baino ez du eman. Otsagiko Udalarekin, ordea, harremanak onak izan dira, batez ere kanpina eraikitze orduan».

Izan ere Zaraitzu zein Erronkarin —azken honek tradizioa zabalagoa izanda ere—, turismoak dituen abantailak orain hasi dira antzematen, eta landa etxeen sareak ere eragina izan du horretan. Egun hogeitalau etxe daude horretarako Zaraitzun eta hamabost Erronkarin.

Carlosenaren ustez, turismoa osagai ona izan daiteke bertakoendako, «baina ez da arazo guztiak konponduko dituen. Orain konfidantza



Fondoko eskia eta udalekuak antolatzen hasi ziren lehendabizi.

handiagoko dago jendearen artean, lehen oso urrun eta arraroa ikusten bait zuten turismoarena, baina laguntzak ez dira gauzatzen, agian baliabideak ere ez direlako apartak».

Talde honen inguruan bildutako jendeak garbi dauka bere herrietan bizi nahi duela, eta oraindik turis-

moarekin jende asko ez bada mantentzen ere, gazteak bertan gelditze-ko lagunduko duelakoan daude. «Gu turismo 'biguna' aurrera eramatearen aldekoak gara, hau da, hemengo jendearendako lagungarria izango dena, ez kanpoko industri edo enpresariak aberasteko balio izan zezake-

keena. Hau martxan jarri aurretik, askok Irueñan edo egiten genuen lan, eta zerbait aurkitu ezean, han gelditu beharko genukeen, jende askori gertatu zaien bezala. Hala ere, ez da ona hemengo ekonomia horretan bakarrik oinarritzea, bolada txarra etorri zezakeen, arazoak etorriko dira eta.

Juan Apezetxea.....apaiza

Nafarroako Kultur Kontseiluak osaketa berria dauka joan den hilaz geroztik, zenbait partaide berriekin. Horien artean Juan Apezetxea euskaltzain urgazle goizuetarra dugu,

egun Orokieta eta Gartzaron-Erbitiko apaiza dena, eta hogeitasei kontseilarien artean euskarazko gaietan murgilduta dagoen bakarra. Baditu, hala ere, berrekin batera beste hiru euskaldun.

«Ez dira nahastu behar hizkuntza eta kultura»

A. B. / OROKIETA

EGUNKARIA.— Zein izango da zure bete-beharra eta zure lana kontseilu honen barruan?

JUAN APEZETXEA.— Lehendabizi azaldu beharko litzateke zer den kontseilu hau eta zertarako dagoen egina. Orain dela zazpi urte osatu zen, aholkulari batzorde gisa, ez erabakikorra. Bi zeregin nagusi ditu: Gobernuraino iritsiarazi kulturaren premia eta interesak, eta aurrera eramaten diren programa eta egitasmoen jarraipena egin. Bertan sei sail daude, artxibo eta liburutegiak, musika, arkeologia, arte ekintzak, ondasun historikoa, eta argitalpenak. Azkeneko honetan sartu



naute eta baita buru izendatu ere. Baina ez da inoiz ahaztu behar aholkuak emateko baino ez duela balio, eta, beraz, nahikoa mugatua dela.

EGUNKARIA.— Hala ere, kontseiluan zaudeten hogeitasei partaideen artean, lau euskaldun baino ez dago, eta euskal gaietan murgilduta zu bakarrik. Ez da urriegia?

APEZETXEA.— Nik uste dut lau euskaldun izatea ez dela gutxi. Kontutan hartu behar da kontseilu honek pleinoa eta batzordeak dituela, eta lan interesgarriena batzordeetan egiten dela. Hor daude lau euskaldun horiek. Baina esan behar da ere ez dagoela euskararentzat bereziki batzorderik, euskarak beste tokiak horretarako badituelako. Nik garbi esan nahi nuke nere eginkizuna ez dela euskara bakarrik, baizik eta mota guztietako argitalpenak. Hori garbi esan behar da. Ni euskaltzain naizen gisan jaso beharko ditut euskaratik datozen premiak, baina nere postua ez da bakarrik horretarako.

EGUNKARIA.— Jose Maria Satrustegi Euskaltzaindiako idazkaria zu baino lehen izan zen kontseilu be-

Euskal kulturaren nere ideia oso zabala da, eta horretan euskara bitartekoa da, beste zerbait adierazteko, komunikatzeko balio duena, ez mantentzeko *per se*.

rean, eta dimisioa aurkeztu zuen duela urtebete, hain zuzen ere euskararekiko bertan eramaten zen politikarekin bat ez zetorrelako. Orduan esan zuen euskara ez zela kultura bezala hartzen kontseiluaren barruan.

APEZETXEA.— Kontseilu honetan mota guztietako kultura eta adierazpenek dute toki, eta bere eginkizuna ez dago hizkuntzara mugatuta, baizik eta zabalagoa da. Horregatik, ez dugu nahastu behar hizkuntza hutsa eta kultura. Bi gauza dira. Euskara bat da, oso garrantzitsua, baina bada ere euskal kultura eta askotan, zori-

txarrez, gehiegi mugatzen gara hizkuntza hutsean. Euskal kultura zerbait zabalagoa da eta kultura hori adierazteko dugu denok hizkuntza, baina hau ez da absolutu bat, baizik eta zerbait adierazteko, komunikatzeko. Tresna horri eutsi egin behar zaio, noski, baina ezin gara horretan gelditu. Tresna horren bidez erakutsi behar diogu elkarri eta munduari nor garen, gure nortasuna nolakoa den, baina nortasun hori ez dago bakarrik hizkuntzan.

EGUNKARIA.— Orduan, zu euskal kultura bultzatzearen aldekoa zinateke, euskara baino.

APEZETXEA.— Biak batera, ez daitezke gauzak zatikatu. Euskara bitarteko bat da, beste zerbaitetarako, ez

mantentzeko *per se*. Euskal kulturaren nere ideia oso zabala da. Ez da liburuak, ez zientziak, baizik eta askoz zabalagoa den zerbait.

EGUNKARIA.— Nafarroan aipatu da maiz euskal kultura bultzatzeko ahalagin gutxi dagoela.

APEZETXEA.— Alde horretatik errealistak izan behar. Egia da, gehiago egin liteke, baino egiten ari dira gauzak. Adibidez, ni batzordeetako presidentea naiz, eta euskaldun bat hor sartzea bada zerbait. Horrek esan nahi du badela kezka bat honen inguruan. Gainera, gaia ez da errazegia, askotan, zoritxarrez, sartu beharko ez luketen gauzak sartzen bait dira honekin. Politika, bereziki, eta nahastu eta atzeratu baino ez du egiten horrek. Hor bada lan handia egin beharra, gauzak bereizteko, baina, noski, ez da erraza izango. Gure artean, zoritxarrez, oso nahasiak ikusten ditut gauzak, eta askotan esaten da hizkuntza normalizatu behar dugula. Nik aurretik esango nuke herria eta gizartea normalizatu behar dugula. Gure elkar bitzita normalizatu ez badugu egiten...



Hizkuntza normalizatu aurretik gizartea normalizatu behar dela dio.

JOXE

ZVLDI ERDA

